

BRUXIMOAREN DETEKZIORAKO ETA PREBENTZIORAKO SENTSORE ADIMENDUA

Sensibru proiektua bruxismoaren detekzio eta prebentzio arloan iraultza ekartzeko sortu da. Bruxismoa, hortzak estutzea edo karraskatzea, askotan konturatu gabe gertatzen da, eta ondorio larriak eragin ditzake aho hortzetako osasunean eta bizi kalitatean. Gure soluzioa hiru elementu nagusitan oinarritzen da: sentsoare adimendunak hortz-funda gardenetan integratuta, informazioa denbora errealean jasotzeko gai den aplikazio mugikor bat, eta datuen monitorizazioa eskaintzen duen erloju adimenduna. Soluzio honek hortzak estutzean sortzen den presioa neurtzen du eta profesionalentzako analisi zehatzak eskaintzen ditu.

Bruxismoaren une zehatzak identifikatzeaz gain, faktore emozional eta fisikoen arteko lotura aztertzen laguntzen du. Horri esker, erabiltzaileek beren estresa hobeto kudeatu eta hortz-kalteak saihestu ahal dituzte. Erabilera erraza eta irisgarritasuna ditugu ardatz, eta teknologia aurreratuaren bidez, osasun profesionalek diagnostiko eta tratamendu eraginkorrak egin ditzaten laguntzen dugu. Soluzio teknologiko berritzaile eta integrala, osasun hobea eta bizi-kalitate handiagoa lortzeko.